

Modèle CCYC : ©DNE	
Nom de famille (naissance) :	
(Suivi s'il y a lieu, du nom d'usage)	
Prénom(s) :	
N° candidat :	
(Les numéros figurent sur la convocation.)	
	
Né(e) le :	
N° d'inscription : <input type="text"/>	
1.1	

Évaluation

CLASSE : Première

voie : Générale Technologique Toutes voies (LV)

ENSEIGNEMENT : Basque

DURÉE DE L'ÉPREUVE : 1h30

Niveaux visés (LV) : LVA B1-B2 LVB A2-B1

Axes de programme : **Axe 6, « Fictions et réalités »**

CALCULATRICE AUTORISÉE : Oui Non

DICTIONNAIRE AUTORISÉ : Oui Non

Ce sujet contient des parties à rendre par le candidat avec sa copie. De ce fait, il ne peut être dupliqué et doit être imprimé pour chaque candidat afin d'assurer ensuite sa bonne numérisation.

Ce sujet intègre des éléments en couleur. S'il est choisi par l'équipe pédagogique, il est nécessaire que chaque élève dispose d'une impression en couleur.

Ce sujet contient des pièces jointes de type audio ou vidéo qu'il faudra télécharger et jouer le jour de l'épreuve.

Nombre total de pages : 4

Baccalauréat général et technologique

Basque

Classe de première

Compréhension de l'écrit et expression écrite
(3^e trimestre)

Niveau visé LVB : A2-B1	Durée de l'épreuve 1 h 30	Barème 20 points CE : 10 points EE : 10 points
-----------------------------------	-------------------------------------	---

L'ensemble du sujet porte sur **l'axe 6** du programme « **Fictions et réalités** ».

Il s'organise en deux parties :

- 1. Compréhension de l'écrit**
- 2. Expression écrite**

1. Compréhension de l'écrit (10 points)

Titre du document : *Su zelaiak*

Ondoko galderiei euskaraz erantzun.

- a. Zergatik Rafael Pikassari-k ez ote du nahi bere semea gerlara joan dadin ?
- b. Zer erabakitzentzu bere semea ez dadin gerlara joan eta nola ihardetsiko du, Rafaelen ustez, herriko biztanleriak hori jakitean?
- c. Zergatik Riand kolonelak bere semeak biltzen ditu ?
- d. Zer erabaki du haren alabak ?

Su zelaiak

Rafael Pikasarri. 60 urte. Garaiera: metro bat eta lautan hogeita bi zentimetro. Zabalean, bada haritz bat adina. Fama du beso bakarrarekin hirurehun liberaz goitiko harria altxatu izana gaztetan. Ezpeletako jaun mera da. Prusianoen aurkako gerlan, orai berrogei urte direla, balentria handiak egin zituen haren aitak zaldizkoetan eta, holetan, familia errespetatua izan da beti Ezpeletan. Linette Organbururekin hogeita hamar urtetan ezkondu eta bi alaba eta seme bat izan ditu geroztik. Orai Pikasarri Zaharra erraten diote aitari; Pikasarri Gaztea, semeari. Prudent semea, soldadugoa eginik lau urte lehenago, erresalbuan da orai. Gerlarat joateko deia heldu delarik Ezpeletarat, gazteenak mobilizatu dituzte lehen aldi. Baina Pikasarri Zaharrak badaki erresalbuko soldaduen ordu ere izanen dela berant baino lehen. Alemanen kontrako gerlarat beharko dira pusatu gazteak oro, erabili indar guziak, hustu bihotzak. Pikasarri

Zaharrak anaia bat du ere Donezteberat ezkondua, eta harekin egin du harremana. Pikasarri Gazteak muga iraganen du igande gauean, sos batzuekin moltsan, eta osabak hartuko du Doneztebeko etxeen. Gerla fite bururatuko den esperantza badute etxeen; menturaz, urtea finitu aitzin etxeen izanen da berriz Prudent.

Pikasarri Zaharrak ez du utziko seme gehienetako gerlan suntsi dadin, etxea galtzeko arrisku izanen bailitzateke alaben senargaietarik bat etxearen nagusi uztea. Ezpeletan nehork ez du, oraino, etxea zutik atxikitzeo pikasarritarrek hartu duten deliberoaren berri; fite hedatuko dira albisteak ordea, eta Pikasarri Zaharrak jaun meraren kargua utzi behar lukeela pentsatuko dute herritar batzuek; aski delibero burutsua izan dela, bertze zenbaitek.

Bertrand Riand jaunak sei semeak elkartu ditu etxeeko atarian, Angelun. Haietarik zaharrena baitu kapitain Baionako Infanteriako 49. erreximenduan, bertze bat oraino kaporal, eta bertze bat lotinant, gainerateko hirurak lehen aldi soldadu joatekoak. Formazioan ezarriak, eskuak gibelean, adi dituen semeen aitzinean, mintzaldi bat egin du Bertrand Riand jaunak. «Orena heldu da kuraia guzia ager dezazuen», erran die fermuki, «nazioaren independentzia eta batasuna bermatzeko, gure etxeak eta gure askatasuna, Errepublika bera, bermatzeko!». Koronel izana bera ere, erretreta harturik hamar urte lehenago, Rhin ibaian prusianoek inguratuak zituzten hiru soldadu frantsesei gertatuak gogorat ekartzen ari da Bertrand Riand zaharra, bihotz altxagarri izan dadin gerlarat doazkion semeentzat, non eta korrika ttipian agertu den Marie Riand, alaba bakarra. Atariko borta nagusia tarrapatan hetsi eta anaien herronka berean ezarri da, baliza handi bat utzirik oinen aitzinean, hesola bat bezain xut. Diskurtsoa eten du koronel zaharrak. Monokuloa altzatu, eta garbitu du mokanes zuri batez. «Norat zoazela uste duzu ordea? Gerla ez da emazteentzat», erran dio alabari zorrotz. «Gurutze Gorrian emana dut izena, aita, ene haurreideen zerbitzuko».

Su zelaiak
Mikel Peruarena Ansa
2014

2. Expression écrite (10 points)

Ondoko bi gaietarik **bat** garatuko duzu euskaraz, 12 bat lerrotan.

Sujet A

Lehen Mundu Gerla hasi berria da. Gerlan parte ez hartzeko erabakitzetan duzu beherala muga zeharkatzea familiakide batengana joateko. Gutun bat idatziko diezu gurasoei azaltzeko zure erabakia, zure beldurrak eta gogoak.

Sujet B

2019ko urtarrilaren 11ko Eitb-ko emankizun batean, Iban ZALDUA idazleak zioen : “Fikzioa egokia da errealitatea kontatzeko”. Bere iritziz fikzioak irakurlea edo ikuslea laguntzen du errealitatean murgiltzera.

Zure iritzia emanen duzu testu antolatu baten bidez zure esperientzia, ikusi dituzun filmak, irakurri dituzun liburuak etab baliatuz.